

HUHEZIKo irakasle talde bat Web 2.0 ikastaroa hartzen hasi da

2007/05/27

Joan den ostiralean hasita, eta bost astez, **HUHEZIKo** irakasle talde bat ikastaro bat egiten hasi da, trebatzeko Web 2.0 eremuko aplikazioetan. Ikastaroak hamar ordu iraungo du, eta denbora horretan, irakasleek aplikazio hauek erabiliko dituzte:

- Posta zerrendak.
- Blogak.
- Firefox nabigatzailea.
- Flickr, argazkiak sarean kudeatzeko.
- del.icio.us, irakurketak sailkatu eta kudeatzeko.
- Bloglines, sareko informazio iturriak kudeatzeko.
- Odeo, podcastinak egiteko; alegia, sareko irratia.
- Tagzania, mapak sailkatu eta kudeatzeko.
- Netiketa; hau da, zer jarrera izan sarean.

Azken egunean IKTeroak etorriko dira HUHEZIkra, Jakintza Ikastolako hiru irakasle, azaltzeko zelan darabiltzaten aplikazio horiek irakaskuntzan. Azken batean, horixe baita ikastaro horren helburuetariko bat; hain zuzen ere, **ikusaraztea gure irakasleei zer lotura dagoen aplikazio horiek eta irakaskuntzaren artean.**

